

KOIUNTURA DI-DA BATEAN

2025eko ekaina

Aurkibidea

1. Gizarte Segurantzako afiliazioa

2. Langabezia erregistratua

3. Inflazioa

4. Kanpo merkataritza

5. PMI konposatua

6. Europar Batzordearen aurre.

Eranskina

1. Gizarte Segurantzako afiliazioa %1,0 igo zen maiatzan

Afiliazioaren hazkundera biziagoa izan zen emakumeen artean (%1,2) gizonen artean (%0,8) baino.

2. Erregistratutako langabezia %1,7 murriztu zen urte artean maiatzan.

Jaitsiera nabarmenagoa izan zen gizonen artean (-%2,0) emakumeen artean (-%1,4) baino.

3. EAEko inflazioa %2,6ra jaitsi zen apirilean.

Bai erregaiek bai elektrizitateak prezioak murrizteko prozesu horretan lagundu zuten.

4. Alemaniarako esportazioek hazkunde tasa positiboak berreskuratu dituzte.

Guztira, atzerriko ondasunen salmenta %1,6 hazi zen lehen hiruhilekoan.

5. Atzerapausoa euroaren eremuko jarduera ekonomikoan.

PMI indize konposatua 49,5ean kokatu zen maiatzan, zerbitzuek okerrera egin zutelako.

6. Europako Batzordeak aurreikuspenak %1,1era egokitu ditu 2025ean, merkataritza ziurgabetasunagatik.

Datorren urtean hazkundera bizkortuko dela aurreikusten da, inbertsioa areagotuko delako.

GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA

Gizarte Segurantzako afiliazioa %1,0 igo zen maiatzean


Gizarte Segurantzako afiliazioa %1,0 hazi zen maiatzean urte arteko tasan, aurreko bost hilabeteetakoaren oso antzeko emaitza baita. Beraz, aldagai horrek bere bilakaeran egonkortasun nabarmeneko irudia ematen du. Afiliazioen guztizko kopurua 1.029.149 izan zen hilabete horretan, eta horrek errekorra ezarri du serie historikoan. Balio absolutuetan, azken hamabi hilabeteetako hazkundera 10.000 afiliazio ingurukoa izan da.

Sexuaren araberako azterketak adierazten du emakumeak arrakasta handiagoa izaten ari direla lana aurkitzeko orduan. Hala, emakumeen afiliazioak %1,2ko aldakuntza tasa izan zuen, eta gizonenak, berriz, %0,8koa. Tasa horien ondorioz, 5.691 afiliazio gehiago daude emakumeen artean eta 4.251 gehiago gizonen artean. Hala eta guztiz ere, gizonen afiliazioa emakumeena baino handiagoa da oraindik ere (532.000 gizon inguru eta 497.000 emakume).

GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA GUZTIRA


Urte arteko aldakuntza tasa

MAIATZAKO AFILIAZIOA
%1,0




GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO EMAKUMEAK

Urte arteko aldakuntza tasa




GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO GIZONAK

Urte arteko aldakuntza tasa




AFILIAZIOA INDUSTRIAN

Urte arteko aldakuntza tasa



AFILIAZIOA ZERBITZUETAN

Urte arteko aldakuntza tasa



Sektore ekonomikoen arabera bilakaerak erakusten du industria alorreko enpleguaren sorrera gelditu egin dela (%0,0), eta zerbitzu jardueretako afiliazioaren hazkundera, berriz, esanguratsua izan dela (%1,2). Eraikuntzak ere ekarpen nabarmena (%1,8) egin zion afiliazioari. Jarduera adarren arabera xehetasunek

erakusten dutenez, asko izan dira guztizkoari gutxienez 1.000 afiliazio berri ekarri dizkiotena, eta horien artean osasun jarduerak nabarmentzen dira. Aitzitik, zenbait adarrek enplegua galdu dute, eta horien artean etxeko langileak eta merkataritza nabarmentzen dira, lehen sektorearekin batera.

GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTA DAUDEN LAGUNAK

	2024ko maiatza	2025eko maiatza	Aldakuntza
AFILIAZIOA GUZTIRA	1.019.213	1.029.149	9.936
Industria manufakturagileak	175.386	175.178	-208
Merkataritza	135.131	134.646	-485
Osasun arloko jarduera	112.988	115.451	2.462
Hezkuntza	85.434	87.270	1.836
Ostalaritza	72.752	73.903	1.152
Administrazio jarduerak	68.995	70.107	1.112
Lanbide jarduerak	63.774	65.688	1.914
Eraikuntza	58.483	59.560	1.077
Administrazio publikoa	52.880	52.551	-329
Garraioa	46.015	47.390	1.375
Informazioa eta komunikazioa	27.835	28.499	664
Etxeko langileak	28.938	27.761	-1.177
Bestelako zerbitzuak	27.504	27.442	-62
Jarduera artistikoak	19.804	20.300	496
Finantza jarduerak	17.205	17.521	316
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	12.842	12.405	-437
Ur horniketa	6.482	6.616	135
Higiezin jarduerak	4.388	4.464	76
Energia horniketak	1.755	1.733	-21
Erauzketa industriak	536	566	30
Lurraldez kanpoko erakundeak	87	97	10

Iturria: Gizarte Segurantza.

LANGABEZIA ERREGISTRATUA

Erregistratutako langabezia %1,7 murriztu zen urte artean maiatzean

Maiatzean, erregistratutako langabezia %1,7 murriztu zen aurreko urteko hil beraren aldean. Guztira, 104.659 pertsona daude alta emanda Lanbideren bulegoetan, langabetzat hartzeko beharrezkoak diren ezaugarriak betetzen dituztenak. Gaur egungo zifrak 1.763 pertsonatan jaitzi du 2024ko maiatzean zegoena.

Langabeziaren sexuaren arabera banaketak erakusten du urte arteko jaitziera apur bat handiagoa izan dela gizonen artean (-%2,0) emakumeen artean (-%1,4) baino, nahiz eta pertsonen kopuruan zifrak oso antzekoak diren: 880 langabe gutxiago gizonen artean eta 883 langabe gutxiago emakumeen artean.


LANGABEZIA ERREGISTRATUA. GUZTIRA

Urte arteko aldakuntza tasa

LANGABEZIA ERREGISTRATUA.


MAIATZA

-%1,7




LANGABEZIA ERREGIST. EMAKUMEAK

Urte arteko aldakuntza tasa




LANGABEZIA ERREGISTRATUA. GIZONAK

Urte arteko aldakuntza tasa




LANGABEZIA. GAZTEAK

Urte arteko aldakuntza tasa



LANGABEZIA. ATZERRITARRAK

Urte arteko aldakuntza tasa



Adinaren araberako portaera desberdina hautematen da: 25 urtetik beherakoen artean, 346 langabe gehiago daude, eta adin horretatik gorakoen artean, ordea, jaitsiera oso esanguratsua gertatu da (-2.109 pertsona). Nazionalitatearen araberako joera ezberdinak ere badaude, langabeziak gora egin baitzuen atzerritarren

artean. Azkenik, nabarmentzekoa da inoiz enplegurik izan ez duten pertsonak lan merkatuan sartu direla, eta langabetuen kopuruak gora egin duela; aldiz, behera egin du aurretik esperientzia duten pertsonen kopuruak, batez ere zerbitzuetan eta eraikuntzan lan egin dutenak.

LANGABEAK

	2024ko maiatza	2025eko maiatza	Aldakuntza
LANGABEAK GUZTIRA	106.422	104.659	-1.763
LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA			
Araba	18.081	18.168	87
Bizkaia	60.227	58.743	-1.484
Gipuzkoa	28.114	27.748	-366
SEXU ETA ADINAREN ARABERA			
Gizonak	45.117	44.237	-880
Emakumeak	61.305	60.422	-883
25 urtetik beherakoak	8.864	9.210	346
25 urte baino gehiago dutenak	97.558	95.449	-2.109
EKONOMIA SEKTOREAREN ARABERA			
Lehen arloa	1.941	1.861	-80
Industria	10.145	10.032	-113
Eraikuntza	6.031	5.480	-551
Zerbitzuak	74.110	72.782	-1.328
Lehenago lan egin dutenak	92.227	90.155	-2.072
Lehenago lan egin ez dutenak	14.195	14.504	309
ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA. ATZERRITARRAK			
Langabe atzerritarra	20.124	20.390	266

Iturria: SEPE.




**Ekonomia, Lan eta
Enplegu Saila**

INFLAZIOA

EAEko inflazioa %2,6ra jaitsi zen apirilean

KPI INDIZE OROKORRA

Urte arteko aldakuntza tasa



Apirileko KPIak %2,6ko balioa izan zuen, aurtengo martxorako erregistratutakoa baino bi hamarren txikiagoa. Beraz, otsailean hasitako moteltzeko joerak bere horretan jarraitzen du. Bai erregaiek bai elektrizitateak lagundu dute emaitza hori lortzen, eta aurreko hilabetearekin alderatuta, merkatu egin dira.


KPIAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasa eta ekarpenak

	2023	2024	2025eko apirila	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	3,6	3,1	2,6	2,6
Azpiko inflazioa (%84,8)	6,2	3,2	2,8	2,3
- Elikagai landuak (%14,8)	12,5	4,6	2,0	0,3
- Industria ondasunak (%20,2)	4,7	1,2	1,0	0,2
- Zerbitzuak (%49,8)	4,3	3,5	3,7	1,8
Hondar inflazioa (%15,2)	-6,4	2,6	2,0	0,3
- Landu gabeko janariak (%6,4)	7,3	4,0	7,2	0,5
- Energia (%8,8)	-17,0	1,0	-1,5	-0,1


AZPIKO INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa




HONDAR INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



ELIKAGAIEN PREZIOA


Urte arteko aldakuntza tasa



Aurtengo apirilean azpiko inflazioak gorakada txiki bat izan zuen otsaileko eta martxoko joera-ekin alderatuta, eta hondar inflazioak motel-tzen jarraitu zuen, energiaren prezioen jaitsie-rek lagunduta. Elikagaiek urte arteko %3,6 egin dute gora berriro, martxoko datua berdinduta, eta KPI orokorrak baino erritmo biziagoan ga-restitzen jarraitzen dute. Etxebizitza da, berriz ere, gehien garestitzen den taldea, baina urtea-ren hasieran baino askoz erritmo apalagoan ga-

ZERBITZUEN PREZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



restitzen da (urte arteko %4,6 bakarrik, urtarri-lean eta otsailean %8,8 eta %11,1 izanik, hurre-nez hurren), elektrizitatearen prezioen jaitsie-rak lagunduta. Jatetxe eta hotelen taldeak eta beste ondasun eta zerbitzu batzuenak urte ar-teko prezioen %3,7ko eta %4,2ko igoerekin ja-rraitzen dute, hurrenez hurren, gainerako talde-en gainetik. Jantzi eta oinetakoena eta garraioa-rena %0,3 eta %1,3 jaitsi dira, hurrenez hurren, eta indize orokorra moteltzen lagundu dute.

KPI TALDE NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasa. 2025eko apirila

	Euskadi	Espainia	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	2,6	2,2	2,2
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	3,6	2,0	2,7
Edari alkoholodunak eta tabakoa	3,5	2,6	3,9
Jantziak eta oinetakoak	-0,3	0,3	0,2
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	4,6	4,2	2,3
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	1,6	0,5	0,3
Osasuna	1,7	2,0	3,3
Garraioa	-1,3	-1,6	0,0
Komunikazioak	2,1	2,1	-3,0
Aisia eta kultura	3,5	2,7	2,3
Hezkuntza	2,3	2,5	3,9
Jatetxeak eta hotelak	3,7	4,5	4,1
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	4,2	3,6	4,1

Iturria: INE eta Eurostat.

Alemaniarako esportazioek hazkunde tasa positiboak berreskuratu dituzte


ESPORTAZIOAK GUZTIRA

Milioi euro

1. HIRUHILEKOKO ESPORTAZIOAK

ALDAKUNTZA TASA

%1,6




Eustaten datuen arabera, atzerrira bidalitako ondasunen guztizko esportazioak %1,6 hazi ziren 2025eko lehen hiruhilekoan. Gorakada hori bereziki martxoan izandako %6,6ko igoerak bultzatu zuen, otsailean hasitako susperraldia sendotzen baitu (%2,4), eta atzean uzten ditu, aldi baterako behintzat, urtarrilean eta 2024ko amaieran izandako jaitsierak, orduan esportazioak %5,5 uzkuritu baitziren. Aste Santua apirilean ospatu izana (2024an martxoan izan zen bitartean) emaitza horretan mesedegarria izan zitekeen, egutegi efektu baten ondorioz.

Urtaroen eragin horretatik haratago, gorakada, neurri handi batean, Alemaniako esportazioen susperraldian oinarritu zen. Bost hiruhilekoko jaitsieren ondoren, herrialde horretako salmentak %1,0 igo ziren, automobilgintzaren sektorearen susperraldiak bultzatuta. Sektore horren esportazioak %0,6 hazi ziren, aurreko urte osoan bi digituko jaitsierak izan ondoren. Europako beste bazkideekiko urte arteko alderaketak positiboak izan ez ziren arren, Frantzia eta Italiako salmentak aurreko hiruhilekokoak baino handiagoak izan ziren, eta hobekuntza hauteman zen.


ESPORTAZIO EZ-ENERGETIKOAK

Milioi euro



ENERGIAKO ESPORTAZIOAK

Milioi euro



ESPORTAZIOAK HELMUGAREN ARABERA. 2025EKO 1. HIRUHILEKOA

Herrialdea	Pisua %	Aldakuntza tasak
Frantzia	15,6	-10,0
Alemania	14,8	1,0
Erresuma Batua	6,5	-2,7
Italia	6,1	-0,2
AEB	5,9	-9,5
Portugal	4,5	-1,4
Belgika	4,1	-12,0
Herbehereak	3,2	-0,1
Polonia	3,1	15,5

Sektoreka, esportazioen hazkundea metal arrunten (%3,7) eta, batez ere, ekipo ondasunen (%8,5) hobekuntzan oinarritu zen. Horiek esportatutako guztiaren erdia baino gehiago osatzen dute, eta, urtebeteen lehen aldiz, gorakadak izan zituzten bai makina eta aparatuen taldean, bai garraio materialean. Aitzitik, erregai mineralen esportazioak %47,7 jaitsi ziren, baina horien eragina mugatua izan zen guztizkoaren barruan pisu txikia zutelako.


ESPORTAZIOEN BANAKETA. 2025EKO 1. HIRUHILEKOA

Arantzel taldea	Pisua %	Aldakuntza tasak
Ekipamendu ondasunak	50,7	8,5
Garraio materiala	28,8	7,0
Makinak eta aparatuen	21,9	10,7
Ohiko metalak eta manuf.	21,4	3,7
Plastikoa eta kautxua	6,2	-20,3
Nekazaritzako produktuak	5,9	13,0
Produktu mineral, energetikoak	3,5	-47,7
Produktu kimikoak	2,9	-20,3
Papera	2,4	-3,6

Beste aldetik, inportazioak %5,9 areagotu ziren, energiaz bestelako ondasunen erosketak bultzatuta (%12,8), energetikoak %12,0 gutxitu baitziren. Portaera horrek EAEko ekonomiaren sendotasuna eta eskari iraunkorra islatzen ditu. Horren guztiaren ondorioz, merkataritza saldo osoa positiboa izan zen, 753 milioi eurotik gorakoa, eta energiaren saldoak 1.320 milioitik gorako defizita izan zuen. Azkenik, estaldura tasa %110,9 izan zen.

INPORTAZIOAK GUZTIRA


Milioi euro



Iturria: Eustat.

SALDOA GUZTIRA

Milioi euro





PMI KONPOSATUA


Atzerapausoa euroaren eremuko jarduera ekonomikoan

Maiatzean, euroaren eremuko PMI konposatua 49,5ean kokatu zen, uzkurdura eremuaren barruan, lau hilabetez jarraian hazkunde txikia lortu ondoren. Ekonomiaren bi sektore nagusietan bilakaera kontrajarriak hautematen dira. Hala, badirudi manufakturak (51,5) urrun daudela 2023ko eta 2024ko zati handi batean erakutsi zuten ahultasun nabarmenetik; aitzitik, zerbitzu-ek (48,9) dinamismoa galdu dute eta uzkurdura


eremura igaro dira. Industriaren hobekuntza orokorra da, eta Europako herrialde handiak seinale pozgarriak bidaltzen ari dira. Gainera, enpresak baikorrak dira, baina zuhurtziaz, eta konfiantza dute epe luzean. Interes tasen murrizketa berriak eta energiaren prezioen moteltzea, bereziki petrolioarena, hurrengo aldietan jarduera bultza dezaketen faktoreak dira.

PMI KONPOSATUA. EUROGUNEA


2025EKO MAIATZA
49,5




MANUFATUREN PMI. EUROGUNEA




ZERBITZUEN PMI. EUROGUNEA



PMI KONPOSATUA. ALEMANIA




PMI KONPOSATUA. FRANTZIA




Herrialdeen araberako azterketak adierazten du Frantzia (48,0) egoera deprimituan dagoela eta herrialde horri orain Alemania (48,6) gehitu behar zaiola. Bi kasuetan, manufakturrek susperraldi handia lortu dute, baina zerbitzuetan nabaritzen den ahuleziak konpentsatzen du. Hala ere, euroguneko gainerako herrialdeek emaitza onak eskuratzen jarraitzen dute.

Eurogunetik kanpo, Erresuma Batuak (49,4) hobekuntza txiki bat izan du, baina ez da nahikoa uzteko eremutik irteteko. Aldiz, Japonia (49,8) geldialdi egoerara itzuli da. Azkenik, AEBek (52,1) emaitza hobetu zuten zerbitzuei esker, baina muga zergen inguruko zalantzek hor jarraitzen dute.


PMI KONPOSATUA. ERRESUMA BATUA



PMI KONPOSATUA. AEB



PMI KONPOSATUA. JAPONIA



Iturria: Markit




Ekonomia, Lan eta
Enplegu Saila

EUROPAKO BATZORDEAREN AURREIKUSPENAK

Europako Batzordeak aurreikuspenak egokitu ditu 2025ean, merkataritza ziurgabetasunagatik

EUROPAR BATASUNAREN BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




Europar Batasuneko ekonomia %1,1 haziko da 2025ean, 2024ko erritmoaren antzekoa, Europako Batzordearen aurreikuspen berrien arabera. Joan den udazkeneko aurreikuspenekiko beheranzko berrikuspen hori muga zerga berrien eraginaren eta AEBetako politika komertzialean izandako aldaketen ondoriozko ziurgabetasunak ekarria da. Horregatik, jardueraren igoerak barne eskarian oinarritzen jarraituko du: familien kontsumoak gora egingo du enplegua sortzeari eta erosteko ahalmena berreskuratzeari esker, eta inbertsioa suspertu egingo da iazko beherakadaren ondoren.

BPG. EUROPAR BATZORDEAREN AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2024	2025	2026	2025	2026
Europar Batasuna	1,0	1,1	1,5	-0,4	-0,3
Eurogunea	0,9	0,9	1,4	-0,4	-0,2
Alemania	-0,2	0,0	1,1	-0,7	-0,2
Belgika	1,0	0,8	0,9	-0,4	-0,6
Espainia	3,2	2,6	2,0	0,3	-0,1
Frantzia	1,2	0,6	1,3	-0,2	-0,1
Italia	0,7	0,7	0,9	-0,3	-0,3
Herbehereak	1,0	1,3	1,2	-0,3	-0,3
Portugal	1,9	1,8	2,2	-0,1	0,1
Irlanda	1,2	3,4	2,5	-0,6	-1,1
Grezia	2,3	2,3	2,2	0,0	0,0
Austria	-1,2	-0,3	1,0	-1,3	-0,4


ALEMANIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




FRANTZIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



ESPAINIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



2026rako, hazkundera bizkortuko dela aurreikusten da, EBN %1,5eraino eta eurogunean, berriz, %1,4raino, inbertsioaren igoeraren normalizazioak bultzatuta.

Inflazioak, bere aldetik, moteltzen jarraituko du euroaren eremuan: 2024ko %2,4tik 2025eko %2,1era eta 2026ko %1,7ra, energia prezioen jaitsierak eta euroaren igoerak lagunduta. Oro har, egoerak suspertze moteleko, baina iraunkorreko, profila du, kanpoko faktoreek baldintzatuta oraindik.

KPI. EUROPAR BATZORDEAREN AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2024	2025	2026	2025	2026
Europar Batasuna	2,6	2,3	1,9	-0,1	-0,1
Eurogunea	2,4	2,1	1,7	0,0	-0,2
Alemania	2,5	2,4	1,9	0,3	0,0
Belgika	4,3	2,8	1,8	-0,1	-0,1
Espainia	2,9	2,3	1,9	0,1	-0,1
Frantzia	2,3	0,9	1,2	-1,0	-0,6
Italia	1,1	1,8	1,5	-0,1	-0,2
Herbehereak	3,2	3,0	2,0	0,6	0,1
Portugal	2,7	2,1	2,0	0,0	0,1
Irlanda	1,3	1,6	1,4	-0,3	-0,4
Grezia	3,0	2,8	2,3	0,4	0,4
Austria	2,9	2,9	2,1	0,8	0,4

Iturria: Europar Batzordea eta Eurostat.



ESTATISTIKA ERANSKINA. EUSKAL EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. EUSTAT

Urte arteko aldakuntza tasa

	2023	2024	2024				2025
			I	II	III	IV	I
BPG	2,7	2,2	2,4	2,1	2,0	2,1	2,0
Barneko azken kontsumoa	1,7	2,4	2,2	2,3	2,4	2,5	—
Familien kontsumoa	1,9	2,4	2,1	2,3	2,4	2,5	—
Administrazioaren kontsumoa	1,3	2,3	2,4	2,3	2,3	2,3	—
Kapital eraketa gordina	1,8	2,1	2,3	1,7	2,0	2,3	—
Barne eskaria	1,8	2,3	2,2	2,2	2,3	2,4	—
Esportazioak	1,0	0,1	-3,4	2,1	2,0	-0,3	—
Inportazioak	-0,2	0,3	-3,5	2,2	2,4	0,2	—
Lehen arloa	16,0	3,1	6,5	2,8	1,0	2,2	—
Industria eta energia	1,8	1,0	1,7	1,0	0,8	0,5	—
Eraikuntza	2,6	1,6	2,2	1,0	0,9	2,2	—
Zerbitzuak	3,0	2,6	2,6	2,5	2,5	2,7	—
Balio erantsi gordina	2,8	2,1	2,4	2,1	2,0	2,1	—
Ekoizkinen g/ zerga garbiak	1,7	2,3	2,3	2,3	2,2	2,2	—
Enplegua	1,8	1,8	2,0	1,9	1,6	1,6	1,5

Oharra: Hiruhilekoko desagregazioa eguneratu gabe dago Eustaten aldetik.
2023ko aurrerapena eta 2024ko behin-behineko datuak.

EUSKAL EKONOMIAREN TERMOMETROA. EKONOMIA ZUZENDARITZA

Apirila

2024								2025			
Maia.	Eka.	Uzta.	Abuz.	Iraila.	Urria	Azaroa	Abend.	Urt.	Otsa.	Mar.	Apir.
97,4	99,3	96,4	95,9	98,8	95,1	97,9	96,3	99,4	95,8	94,3	93,5

X<50
Atzeraldia

50<X<100
Hazkunde leuna

X>100
Hazkunde bizia

EAEko ekonomiaren termometroa 93,5eko balioan kokatu zen apirilean. Barne eskaria portaera sendoa era-kusten ari da eta kontsumoak etengabe hazten jarraitzen du. Aitzitik, kanpo sektoreak emaitza negatiboa ekarri du ziurgabetasunez betetako nazioarteko testuinguru batean. Eskaintzaren ikuspegitik, industriak hazkunde erritmo oso apala du, eta ez du hobekuntza seinale argirik iradokitzen. Eraikuntza da gaur egungo sektorerik dinamikoena, eta zerbitzuek, berriz, hazkundeari eta enpleguari egiten dioten ekarpen positiboa sendotzen dute, nahiz eta duela hilabete batzuk baino intentsitate txikiagoarekin izan.



ESTATISTIKA ERANSKINA. EUSKAL EKONOMIA

MARTXOKO AURREIKUSPENAK. EKONOMIA ZUZENDARITZA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2025				2025	2026
	I	II	III	IV		
BPG	1,9	2,1	2,1	2,0	2,1	1,8
Barneko azken kontsumoa	2,3	2,3	2,2	2,0	2,2	1,7
Familien kontsumoa	2,4	2,4	2,3	2,0	2,3	1,7
Administrazioaren kontsumoa	1,9	2,1	2,0	1,9	2,0	1,7
Kapital eraketa gordina	2,2	2,5	2,8	2,8	2,6	2,5
Barne eskariaren ekarpena	2,3	2,4	2,3	2,1	2,3	1,9
Kanpo eskariaren ekarpena	-0,3	-0,3	-0,2	-0,1	-0,2	-0,1
Lehen arloa	2,4	1,0	0,5	-1,0	0,8	-0,1
Industria	0,6	1,2	1,0	1,7	1,1	1,6
Eraikuntza	2,4	3,1	3,1	2,4	2,7	2,2
Zerbitzuak	2,3	2,3	2,5	2,2	2,3	1,7
Balio erantsi gordina	1,9	2,1	2,2	2,0	2,1	1,7
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	1,9	1,9	1,7	2,2	1,9	2,3
Lanaldi osoko lanpostuak	1,5	1,5	1,5	1,4	1,5	1,2
Landunak (BJA)	1,5	1,5	1,4	1,3	1,4	1,0
Langabezia tasa	7,3	6,8	6,8	6,9	7,0	6,7

EAEKO BPGAREN AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK

Urte arteko aldakuntza tasa

	2025	2026		2025	2026
BBVA	2,5	1,9	Euskal Ganberak	2,2	—
Ceprede	2,4	2,0	Eusko Jaurlaritza	2,1	1,8
Caixabank	2,4	—	Laboral kutxa	1,8	—
Hispalink	2,2	2,0	Confebask	1,8	—

ESTADÍSTICA ERANSKINA. ESPAINIAKO EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. INE

Urte arteko aldakuntza tasa

	2023	2024	2024				2025
			I	II	III	IV	I
BPG	2,7	3,2	2,7	3,3	3,3	3,3	2,8
Kontsumo pribatua	1,7	2,8	2,2	2,6	2,9	3,6	3,5
Kontsumo publikoa	5,2	4,1	5,0	3,5	4,3	3,8	3,1
Kapital finkoaren eraketa gordina	2,1	3,0	2,3	3,0	2,1	4,5	4,1
- Aktibo finko materialak	2,4	3,3	1,9	3,4	2,7	5,1	4,2
- Eraikuntzan	3,0	3,5	2,4	3,5	3,9	4,2	2,2
- Ekipamendu ondasunetan	1,1	2,8	0,8	3,2	0,5	6,8	8,0
- Landutako baliabide biologikoak	6,2	5,8	5,2	5,2	6,3	6,3	6,1
- Jabetza intelektualaren produktuak	1,0	1,5	4,0	1,0	-0,4	1,8	3,6
Nazio eskaria (ekarpena)	1,7	2,8	2,4	2,6	2,8	3,5	3,2
Esportazioak	2,8	3,1	1,7	2,8	4,7	3,2	2,1
Inportazioak	0,3	2,4	1,0	1,1	3,7	3,9	3,6

BPGAREN AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK

Urte arteko aldakuntza tasa

	2025	2026		2025	2026
BBVA Research	2,8	1,8	Repsol	2,4	2,0
ICAE-UCM	2,7	1,8	Cámara Comercio de España	2,4	1,9
Equipo Económico (Ee)	2,6	1,9	Instituto Estudios EconómicoS	2,4	1,8
CEEM-URJC	2,6	1,9	Santander	2,3	1,7
Oxford Economics	2,5	1,7	Funcas	2,3	1,6
CaixaBank Research	2,5	2,1	Intermoney	2,3	1,9
CEPREDE-UAM	2,5	2,2	Consenso (batez bestea)	2,5	1,9
CEOE	2,5	2,0	Espainiako Bankua (2025-03)	2,7	1,9
EthiFinance Ratings	2,5	2,0	Gobernua (2025-04)	2,6	2,2
Universidad Loyola Andalucía	2,5	2,2	ELGA (2025-03)	2,6	2,1
Mapfre Economics	2,5	1,7	Europar Batzodea (2025-05)	2,6	2,0
AFI	2,4	2,2	NDF (2025-04)	2,5	1,8
Metyis	2,4	1,8	AIReF (2025-05)	2,3	1,7

Iturria: Funcas.



ESTATISTIKA ERANSKINA. NAZIOARTEKO EKONOMIA

BPGAREN HAZKUNDEA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2023	2024	2024				2025
			I	II	III	IV	I
AEB	2,9	2,8	2,9	3,0	2,7	2,5	2,0
Txina	5,2	5,0	5,3	4,7	4,6	5,4	5,4
Japonia	1,5	0,1	-0,9	-0,5	0,7	1,4	1,6
Kanada	1,5	1,3	0,7	1,2	1,9	2,4	2,3
Europar Batasuna	0,4	1,0	0,6	0,8	1,1	1,4	1,4
Eurogunea	0,4	0,9	0,4	0,5	1,0	1,2	1,2
Alemania	-0,3	-0,2	-0,1	-0,2	-0,3	-0,2	-0,2
Frantzia	0,9	1,2	1,4	1,0	1,3	0,8	0,8
Erresuma Batua	0,4	1,1	0,7	1,1	1,2	1,5	1,3
Italia	0,7	0,7	0,3	0,7	0,6	0,5	0,6
Herbehereak	0,1	1,0	-0,7	0,8	1,7	1,9	2,0

Iturria: Eurostat eta ELGA.

CONSENSUS FORECAST. 2025EKO MAIATZA

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2025	2026	2025	2026	2025	2026
AEB	1,2	1,5	3,1	2,8	4,4	4,7
Japonia	0,8	0,6	2,8	1,6	2,5	2,5
Kanada	0,8	0,7	2,2	2,1	7,2	7,2
Europar Batasuna	1,0	1,4	2,2	2,0	—	—
Eurogunea	0,9	1,1	2,0	1,8	6,4	6,4
Alemania	0,0	1,2	2,1	2,0	6,3	6,1
Frantzia	0,6	0,9	1,2	1,6	7,6	7,7
Erresuma Batua	0,8	1,0	3,0	2,3	4,6	4,8
Italia	0,5	0,7	1,8	1,7	6,2	6,3
Espainia	2,4	1,8	2,4	1,9	10,6	10,4
Herbehereak	1,2	1,2	3,2	2,5	—	—

Iturria: Consensus Forecast.